

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

532

AGINDUA, 2023ko urtarrilaren 20koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak deklaratzeko dena.

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, bat etorritz, betiere, dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin, eta dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari eta goi mailako epaileen izaera honako hauei emango die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Azaroko aitorpenerako Eusko Jaurlaritzan sartu ziren eskabide batzuk ezin izan zituen baloratu Ebaluazio Batzordeak, eskumena duen Kultura eta Hizkuntza Politika Sailera iritsi ez zirelako, eta baloratu eta ebatzi egin dira.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak, 2023ko urtarrilaren 13an egindako bilkuran, bidezko proposamena egin zuen. Baloratu eta ebatzi egin dira.

Ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I. eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin. Era berean, II. eranskinean agertzen diren pertsonen eskabideak ukatu dira, bertan jasotzen diren arrazoietan oinarrituta.

Bigarrena.– Deklarazioak agindu hau argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2023ko otsailaren 1a, asteazkena

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 20a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

I. ERANSKINA

GOI-MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZENDATUTAKOEN ZERRENDA

NAN/IFZ/AIZ/Pasaportea	Esp. zenbakia	Modalitatea	Kategoria
16064638N	1052/23/D	Herri Kirolak	Kirolaria
16056356X	1053/23/D	Herri Kirolak	Kirolaria
16049859E	1054/23/D	Herri Kirolak	Kirolaria
16097607E	1055/23/D	Herri Kirolak	Kirolaria
16097608T	1056/23/D	Herri Kirolak	Kirolaria
16068792A	1057/23/D	Herri Kirolak	Kirolaria
79076083J	1060/23/D	Taekwondo	Kirolaria
58016707N	1061/23/D	Euskal Pilota	Kirolaria
14579907T	159/22/T	Taekwondo	Teknikaria

II. ERANSKINA

EZEZTATUTAKO GOI-MAILAKO ESKABIDEAK

NAN/IFZ/AIZ/Pasaporte	Esp. zenbakia	Modalitatea	Ukatzeko arrazoia
16099148E	1059/23/D	Kirol egokitua	Aurkezten dituen lehiaketak, Basauriko Nazioarteko Meeting eta Athletics Grand Prixerako World, biak 2022koak, ez dira batzorde honek baloratu beharreko lehiaketak. Dekretuaren ebaluazio-batzordeak baloratu beharreko goi-mailako lehiaketak, hala badagokio, Paralinpiar Jokoak, Munduko Txapelketak edota Europako Txapelketak izango lirateke, uneko urtekoak edota eskabidea egin aurrekoak.